

txi
kitto!

2025eko abendua



DIGESTIO
APARATUAREN
BARRERA
BIDAIATZEN

Aurkibidea

TXISTEAK 3

IKASLEEKIN
BERRIKETAN..... 4

IKASTETXEETAKO
BERRIAK 6

BANAKIXAN
BANAKIXALA 8

GURE NAGUSIEKIN
BERBETAN 9

SUKAL-SALTSAN 10

DENBORAPASAK 11

LEHIAKETA 13

ZER IRAKURRI
BITXIKERIAK 14

IPUINA 15

ZU BAI MARGOLARI 16



Argitaratzailea

“...eta kitto!” Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera.
20600 Eibar
Tel: 943 206776

Erredakzio kontseilua

Maider Aranberri,
Ana Aizpurua, Ekhi Belar,
Irati Alvarez, Irune Jaio eta
Eibarko ikastetxeak.

Administrazioa

Marisol Uriarte

Erredakzioa

Irati Alvarez eta
Ekhi Belar

Ikusentzunezkoak

Yanire Sagredo

Diseinua

Irune Jaio

Azaleko argazkia

Ekhi Belar

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

- Ama gaur ez dut eskolara joan nahi.
- Zergatik ba?
- Hasteko, logura naizelako; gero, aspertuta nagoelako eta gainera ilea nola moztu didaten gustatzen ez zaidalako.
- Ba joan beharra daukazu, eginkizuna delako. Bestalde, 35 urte dituzulako eta motel! Eskolako zuzendaria zara!

Zer esaten dio
ogi batek pistola
bati?
PAN!

**ZER GERTATZEN ZAIO
GAZTARI TXIMISTA BAT
ERORTZEN BAZAIO?
GAZTA RAIA TUA
BIHURTZEN DELA.**

Ume batek esaten dio
bere aitari:
-Aita, aita utziko didazu
telebista ikusten?
-Bai, baina plazen ez!

**Ahateak zergatik ez
dira gizakien lagunak?
Enpatikoak direlako.**

Zer esaten dio
platano batek
beste bati?
Korrika egin, azala
kenduko digute-
eta.



TESTUA: **EKHI BELAR** / BIDEOA: **YANIRE SAGREDO**

Aldatze ikastetxeko ikasleek indartsu hasi dute ikasturte berria eta oso ondo barneratu dute orain arte ikasitakoa. Izan ere, sistema berezi bat erabiltzen dute horretarako: azterketa amaitu eta gero, proiektua eta gaiaren nondik norakoak ondo gogoratzeko, kartulinara eramaten dute ikasitakoa, eskulanak eginez.

Lehenik eta behin, landuko dutenaren zirriborroa egiten dute, gauzak non kokatuko dituzten jakiteko. Ondoren, sortutako gauzak kartulinan itsasten dituzte. Gero, atalen izenak jartzen dituzte. Eta azkenik, egindakoa ikaskideen aurrean aurkezten dute.

Oraingo honetan, digestio-aparatuaren inguruan ikasi dute: ahoa, faringea, listu guruinak, gibela, urdaila, heste-lodia, heste-mehea... Horiek kartulinan irudikatu dituzte, baita forma eman ere, eta digestio-aparatuak nola funtzionatzen duen erakutsi digute.

BIDEOA
YOUTUBEN





Malen Arriaga

11 urte

Digestio-aparatuarentzat onena makarroak jatea da.

Martin Mendez

11 urte

Dagoeneko beste gai bat lantzen hasi gara: arnasketa, zirkulazioa eta iraizpena.



Noa Perez de Obanos

11 urte

Gibelak 'garbigailu' baten moduan egiten du, horregatik egiten du zarata.

Mario Airas

11 urte

Barrenean pisu asko ez edukitzeko eta hobeto funtzionatzeko egin behar dugu kaka.



URKIZU

Urkizu eskolan San Andres bezpera ospatu genuen eta urtero bezala, azoka, dantzaldia eta bertako produktuen zozketak egin genituen.

Ikasle eta irakasle guztiak baserritar jantzita etorri ginen, gurasoek prestatutako azoka ikusteko aukera izan genuen eta ogitartekoak jan genituen.

Euskal dantza bat eskaini genien familiei eta irakasleek ere aureskua dantzatu zuten.

Egun borobila benetan!



ARRATEKO ANDRA MARI

Aurten ere gure San Andres azokatxoa antolatu genuen sasoiko jaki eta aintzinako tramankuluekin. Eguna girotzeko, baserritarrez jantzi eta urtero egiten dugun ekitalditxoan Eibarko abestiak abestu genituen txukun-txukun gurasoen aurrean.



ITURBURU



Iturburun, ekitaldi eder batekin burutu genuen Euskararen Egunaren inguruan egindako jarduera sorta. Bertan abestu, dantzatu eta hormirudi haundi eta koloretsua osatu genuen gela guztietan sortutako "burbuila" edo "bokadiloekin".

AMAÑA

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu genuen eskolan. Gure hizkuntza propioa eta berezia bizirik mantentzen duen komunitatea omentzeko eguna. Egun hori identitatearen, kulturaren eta etorkizunaren ospakizuna da. Gure ekarpen txiki baina garrantzitsua egunero-egunero egiten dugu. Eman arnasa euskarari. Eman bizia euskarari. Eman eskua euskarari!



LA SALLE



Gaztainerren patioan erretako gaztaina goxoak dastatu genituen. Tartean, hainbat proiektu eta tailer lantzen aritu gara ikasturte guztietan. Azkenekoz, baserritarrez jantzi eta San Andres azoka muntatu genuen eskolan. Egun horretan, txorizoa jan, abestu eta euskal-dantza ezberdinak dantzatu genituen patioan.

SAN ANDRES

Aurten ere San Andres eguna ospatu genuen eskolan. Goizean txistorra taloak eta ogitartekoak jan genituen eta eskolako azoka bisitatzeko aukera ere izan genuen. Arratsaldean berriz, dantzaldia izan genuen LH-ko ikasleen eskutik. Beste behin primeran pasatu genuen gure herriko ohiturei jarraituz. Gora San Andres!



ALDATZE



Abenduaren 3a gure hizkuntzari diogun maitasuna eta bere alde borrokatzeko premia ikustarazteko eguna izan zen gure eskolan ere. Eman diezaiogun berbia euskeriari!!!



ARIES

*martxoak 21
apirilak 20*


Atsedena eta festaren arteko nahasketa polita datorkizu. Energia beteta ibiliko zara eta oporretan milaka plan sortuko dituzu.



TAURUS

*apirilak 21
maiatzak 20*

Egun lasaiak gustatuko zaizkizu: etxeko beroa, janari bereziak eta familiarekin egotea. Oporrek oso ondo etorriko zaizkizu.



GEMINI

*maiatzak 21
ekainak 20*

Kontu, barre eta hitz egiteko gogoia izango duzu. Gabon giroak istorio ugari inspiratuko dizkizu, eta lagunak pozik entzungo dizute.



CANCER

*ekainak 21
uztailak 20*

Hilabete honetako egun bereziek bihotza bigunduko dizute. Besarkadak, maitasuna eta momentu lasaiak izango dira zure altxor nagusia.



LEO

*uztailak 21
abuztuak 20*


Zure irribarre eta pozak giroa piztuko du etxean eta lagun artean. Oso protagonista sentituko zara egun berezi batzuetan.



VIRGO

*abuztuak 21
irailak 20*

Opariak antolatu, gauzak txukun jarri eta planak prestatzea gustatuko zaizu. Zure ordenak denei lasaitasuna emango die.



LIBRA

*irailak 21
urriak 20*

Familia eta lagun artean oreka polit bat aurkituko duzu. Oporretan bake giroa izango duzu, eta hori asko eskertuko duzu.



SCORPIO

*urriak 21
azaroak 20*

Gabonetan ere izango duzu misterio txiki baten bat: sorpresa bat prestatu, sekreturen bat gorde edo opari bat ezkutatu. Primeran moldatuko zara.



SAGITARIO

*azaroak 21
abendua 20*

Abentura giroa piztuko da berriro. Kanean argiak, bisita txikiak edo familiarekin egindako planak... dena aukera ona izango da zuretzat.



CAPRICORNUS

*abendua 21
urtarrilak 20*

Lasaitasunez, baina seguru ibiliko zara. Urte bukaerak pentsakor jartzen zaitu pixka bat, baina oso gustura egongo zara ingurukoekin.



AQUARIUS

*urtarrilak 21
otsailak 20*

Idea bereziak sortuko dizkizu Gabon giroak: joko berriren bat, familiarekin egiteko plan original bat edo eskulan dibertigariren bat.



PISCIS

*otsailak 21
martxoak 20*

Oporrak amesten dituzun modukoak izango dira: giro lasaia, irudimena pizteko tarte eta une goxo asko. Oso pozik sentituko zara.



TESTUA: **AMAÑAKO ESKOLA**

Hilabete honetan Yasmin Deza Amaña eskolako ikaslea eta bere amama Pili ezagutuko ditugu. Oso ondo moldatzen dira elkarrekin. Yasmin txikia zenetik oporretan elkarrekin joan dira herrira eta harreman berezia sortu dute.

Zein da zuen oroitzapen politena elkarrekin?

Udan, Buenachera joaten garenean, igerilekua ipintzen dugu patioan eta biok elkarrekin afaria prestatu ondoren, familia guztia elkarrekin patioan afaltzen dugu eta oso ondo pasatzen dugu!.

Zer jolas egiten zenuten txikitan eta zein gustatzen zaizu gaur egun?

PILI: Txingorrera, soka saltoan eta gomarekin jolasten ginen "alturitas"-era.
YASMIN: Dantzatzea gustatzen zait.

Zein da zuen asteko egunik gogokoena, zergatik?

BLAK: Ostirala!

Zein da zuen Eibarko txokorik gustokoena?

Azkena taberna, ama eta alabaren taberna.

Zein animalia izango zinateke? Zergatik?

PILI: Txakurra, maitakorra delako eta umeak zaintzen dituelako.
YASMIN: Puma, azkarra delako.

Nola deskribatuko zenukete elkar hitz bakarrean?

PILI: Ume zoriontsua.
YASMIN: Amama dibertigarria.

Zein da zuen janari gustukoena?

BLAK: Letxuga, entsalada.

Zein da azkenaldian ikusi duzuen pelikula edo entzun duzuen kanta gogokoena?

Buenachen, "Yo tengo mi pom pom" abestia.

Nora joango zinatekete elkarrekin bidaia batean?

Buenachera, oso ondo pasatzen dugulako elkarrekin!

Egita RAUA

*Iritsi dira
egun
magikoak!*

GABONETAKO HAUR PARKEA

- **2 eta 12 urte** bitarteko umeei zuzendutako Gabonetako Haur Parkea Astelena frontoian.
- **Abenduak 26, 27, 29, 30 eta 31, eta urtarrilak 2 eta 3.**
- **11:00-14:00 / 16:30-20:30 (Abenduak 31 11:00-14:00).**
- Ordu eta erdi egon ahal izango da bertan.
- Sarrera: **3€** (doan EMGIn bonoekin).

TXIRRISTA

- **Ume** zein **helduei** zuzendutako txirrista Untzaga Plazan.
- **Abenduaren 19tik urtarrilaren 6ra - 11:00-14:00 / 17:00-21:00** (abenduak 24 eta 31 19:30era arte, eta abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean itxita)
- Sarrera: **3€** (doan EMGIn bonoekin).

OLENTZERO

- Gutunak uzteko **buzoia: abenduaren 23ra arte Pegoran eta Portalean.**
- **Abenduaren 24an, Olentzeroren kalejira Urkizutik (11:30) Untzagaraino,** Juan Bautista Gisasola Musika Eskolak eta Adolfo Jainagak lagundurik.
- **12:30etik aurrera gutunak** jasoko ditu Udaletxean.

ERREGEAK

- **Dantza-emanaldia: urtarrilak 5, 17:00, Ipurua kiroldegian.**
- **Kabalgata: urtarrilak 5, 19:00, Untzogatik** kalejira. Ondoren, azkeneko eskutitzak jasoko dituzte.

ROBOTIKA ETA BIDEO-JOKOAK

- **Microsoft MakeCode Arcade.**
- Jazinto Olabe **ludotekan** eta Indianokua **Gaztelekuan.**
- **Abenduak 26, 27, 29 eta 30.**
- Prezioa: **20€** (Eibartik kanpokoek 40€).

7 DESBERDINTASUNAK



SUDOKUA

	7		5	8	3		2	
	5	9	2			3		
3	4				6	5		7
7	9	5				6	3	2
		3	6	9	7	1		
6	8				2	7		
9	1	4	8	3	5		7	6
	3		7		1	4	9	5
5	6	7	4	2	9		1	3

LABIRINTOA

Lagundu Olentzero oparien arbolara heltzen.



ARATOSTEAK 2026
PLAY-BACK
LEHIAKETA

Otsailak 15, 17:00tik aurrera Untzagan
LHko 5. edo 6. mailako ikasleentzat (6ko taldeak asko jota)
IZEN EMATEKO BETE HONAKOA:
- Abestia (EUSKARAZ) MP3 formatuan grabatu + izen emate fitxa beteta
OTSAILAREN 6a baino lehen banaketa@etakitto.eus helbidera

eta kitto!
euskara elkarte

LE- HIAKE- TA

HURRENGO GAIA:
**OPORRETAKO
PLANEN
irudiak.**

Bidali zure
marrazki edo
argazkiak
URTARRILAKren
16a baino lehen
...eta kitto!
Euskara Elkartera
(Urkizu 11, Eibar) edo
aldizkaria@etakitto.eus
email helbidera



Aurreko aleko irabazlea




Aupa **JULEN**,
txapeldun! Marrazki
eder honekin irabazi
duzu hilabeteko saria,
liburua eta ...eta kitto-
ren bisera.
ZORIONAK!!!

6 urte

Protesta

Euarda Limaren estreinako albuma, PROTESTA, oihu isil bat da. Gauetik goizera, xomorrorik ñimiñoenetatik hasi eta etxeko abereetaraino, oihan basetatik gure herriko ibairaino, isiltasunak durundi egiten du nonahi. Entzun dezakezu? Istorio honek dei egiten dio irakurleari, kutsaduraren eta alferrik xahutzearen aurka batu gaitezen, beste batzuek geroago bilduko dutena orain erein dezagun.



8 urte

Arrakastaren bila

Izarren gurasoak ez bide dira ongi konpontzen Izarren etorkizun musikalaren inguruko gaiez ez bada. Aitak entzunaldi bat lortu dio Izarri Bartzelonan munduko ekoizle ospetsuenetako baten aurrean egiteko. Etxean pozez zorutzen daude, baina Izarrek baldintza bat jartzen die gurasoei bere mutila-laguna den Joritzek ere parte har dezan baina gurasoei ez die batere grazia egiten. Izar Joritzekin Bartzelonara joateko planak itxura ederra badu ere, guztiz kontrakoa izango da hasieratik gurasoek ez badiote bikoteari elkarrekin bakarrik egoteko minutu bat bera ere.



10 urte

Benetako zirkua

Sofia eta bere lagun-taldeak herri aspergarri batean bizi direla uste dute. Zirku baten etorrerak baina herritar guztien jakin-mina eta gogoia piztu ditu. Elene erabat haserretu da jakitean zirkuan animalia kaiolatuak daudela ikuskizunerako. Elenek ikustarazi die lagunei zirkuan animaliak zigortu, jo, katean lotu eta torturatzen dituztela. Plan bat jarriko dute orduan abian bidegabekeriari aurre egiteko. Lehenengoan ez, baina bigarrenena lortuko dute herria bere ohiko lozorrotik ateratzea. Il favuloso circo italiano-k ez du inoiz ahaztuko jasotako eskarmentua.



BITXIKERIAK

Lehen emoji 'aurpegitxo zoriontsu' bat izan zen. Scott Fahlman informatikariak sortu zuen **1982**an

Historian ateratako **argazki guztien %10**, azken **12 hilabete**etan ateratakoak dira

Urano planetan, **urtaro batek 21 urte** irauten du, eta **bi** bakarrik daude: **uda** (argiarekin) eta **negua** (iluntasunarekin).

HARITZ ETA BERE DORDOKA

EGILEA: HODEI TRIFOL

Bazen behin mutiko bat Haritz izenekoa. Kirola asko gustatzen zitzaion, ikasle ona zen eta baita azkarra ere. Haritz mutiko ona zen eta etxean asko laguntzen zuen.

Udako oporrak heldu ziren eta Haritz Galiziara joan zen gurasoekin. Hondartza askotan egon ziren eta mendira ere joan ziren. Herri politak ezagutu eta janari goxoak jan zituzten.

Oporretako azken egunean hondartza berezi bat ezagutzera joan ziren, hondartza txuria. Hondartza horretan Haritzek oso ondo pasatu zuen, bainatu egin zen, igeri egin zuen eta ur ertzetik pasio bat eman zuen.

Joateko ordua zenean, Haritz janzten zegoen eta urrunean dortoka bat ikusi zuen. Hurbildu egin zen eta dortoka hondarrean botata eta gaixorik zegoela ikusi zuen.

Haritzek amari galdetu zion ea etxera eraman ahal zuen, baina amak ezetz esan zion. Haritz triste jarri zen eta amari esan zion dortoka oso gaixorik zegoela eta hilko zela. Orduan, amak baietz esan zion.

Etxera itzuli ziren eta ez zekiten dortoka non utzi. Orduan, baineran sartu zuten. Haritzek dortokarentzat leku bat eskatu zien gurasoei eta erosi egin zuten.

Haritz ikastolatik irteten zenean, korriketan joaten zen dortokarengana eta zaindu egiten zuen.

Dortoka urtebetez egon zen Haritzen etxean eta sendatu egin zen. Udako oporretan hondartza txurira itzuli ziren eta dortoka han geratu zen.


Haritz pozik eta triste zegoen aldi berean. Pozik dortokari bizitza salbatu ziolako eta triste dortoka berriro ikusiko ez zuelako.



Zu bai margolari

Zu bai

Margotu gustuko koloreekin



margolari

Zu bai m

argolari

Zu

bai margolari

Zu bai

Zu bai margolari

margolari